

SISIFO

MAITE

MINEZ

Laura Mintegi

Ikaslea: J. F
2002-2003

AURKIBIDEA

- Laura Mintegi	1
- Sarrera	1

Sisifo maite minez

· Kokapena.....	2
· Gaia	2
· Argumentua	2
· Gertakizun nagusiak	3
· Egituraketa	4
· Pertsonaiak	4
· Baliabideak	5
· Iritzia.....	6
- Bibliografia	10

LAURA MINTEGI

Laura Mintegi Lakarra Lizarran 1955eko urriaren 26an jaiotakoa da nahiz eta Venezuelan bi urtez bizi eta Bilbon 1973 arte eman duen. Geroztik Algortan bizi da.

Euskara hamazazpi urterekin ikasi zuen Bilbon. 1978 urtean Deustuko Unibertsitatean Historia lizentziatura egin zuen eta hamaika urte beranduago Psikologia doktoretza burutu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Komunikabide desberdinetan zenbait kolaborazio burutu ditu eta hitzaldi, mahai-inguru eta kongresu askotan ere parte hartu izan du.

1983an narrazio laburrak idatzi zituen *Ilusioaren ordaina* izenburupekoak alegia. Hortik aurrera berriz, nobela ugari argitaratu ditu, hala nola, *Bai...baina ez*(1986), *Legez kanpo* (1991) eta *Nerea eta biok* (Txalaparta,1994). Bi saiakeren egile ere bada, beste hainbat liburu-atalen autore den bezala eta honetaz gain, Donostiako Hiria ipuin lehiaketa, eta Azkue zein Jon Mirande nobela sariak lortu izan ditu.

SARRERA

Amodioari buruzko eleberri honek amodioagatik bere bizitza bertan behera utzi eta beste gizon batekin bizitzera joaten den emakume baten istorioa kontatzen du. Gaur egun kokatuta, nerabeentzako bideratutakoa. Euskal Herrirantz, Managuarantz (Nikaragua), Solentiname izeneko irlarantz eta San Franciscorantz sei urtetako amodiozko ihesaldi baten bitartez eramaten du irakurlea. Ane 6 urte hauetan etxetik kanpo egon ondoren, bueltatu da eta psikoanalista batengana doa bere barneko sentimenduak askatzeko.

2001. urteko nobela da eta honetan Laura Mintegik maitasunari buruzko gorabehera guztiak azaltzen dizkigu etengabeki. Inoiz irakurleak berak ere izan dituen gogoetak birgogoratuz. Pasarte guztietan pertsonaia bakoitzak bere ikuspuntuak aurkezten ditu gaiari buruz eta benetako hausnarketak burutzen dituzte.

Historia bitxia baina noizbait norberari errealitateko egunerokotasunean ere gerta dakiokena. Nobela interesgarria zinez.

SISIFO MAITE MINEZ

KOKAPENA

Maitasunari buruzko nobela honek, jadanik alabadun familia eta bizitza antolatua duen emakume batek aurkitzen duen bat-bateko maitalearekin gauzatzen duen ihesaldi zoroa kontatzen digu. Gaur egunean kokatuta, bidaia luzearen lekuak agertzen dira: Bizkaia, Managua, Solentiname irlak, New York eta San Francisco.

GAIA

Gai nagusia maitasuna da eta sentimendu abstraktu horri buruzko idazlearen ikuspuntuak agertzen dira nobelako pertsonaiek aurkezturik.

Ane Atela Lasa bi alabadun familia bertan behera utzi eta gizon batekin atzerrira bizitzera doa ezertxo ere esan gabe. Honela sei urte igaro ondoren etxera bueltatzen da eta depresioak jota psikoanalista batengana joaten da, Esteban Mugarrarenera.

ARGUMENTUA

Sei urtez etxetik kanpo egon ondoren, Ane etxera bueltatu da. Depresio bat sufritzen duela ematen duenez, bere senarrak psikoanalista batengana bidali du. Anek bere bizitzaren azken urteak kontatzeari ekin dio bertan, nola, inoiz sentitu ez zuen sentimendu batek barnetik erretzen zuen, maitasuna hain zuzen. Guzti hau ulertzeko, psikoanalistak Aneren inguruan gertatutako misterioak argitu nahi ditu, eta erabat lortzen du.

GERTAKIZUN NAGUSIAK

Sei urtez etxetik kanpo egon eta gero, Ane etxera bueltatu da. Bere senarra emaztearen osasunaz kezkatutik, psikoanalista batengana eramaten du, psikologikoki sendatzeko. Sesio horietan gaixoak bere kontuak kontatzen hasten da:

Sei urteko alaba Gurutzetara eraman zuen buruko kolpe baten ondorioz eta hango Mikel, alabaren 45 urtetako zirujau plastikoarekin topo egiten du. Denbora gutxian elkar maitemindu eta gutxi ikustearena ekiditeko eta bakoitzaren benetako maitasuna zela aurreikusirik hiru hilabetetara etxetik alde egiten dute. Anek guztia bertan behera uzten du bere laguna den Karmeleri berria kontatuta: lanbidea, senarra den Jon Goitia eta bi alabak diren Eunete eta Irantzu. Managuara alde egiten dute. Ane guztiz maiteminduta dago denbora guztian Mikelekin egoteko nahiaz, pasioa, desioa. Gutxiago ikusten hasi eta lasterrera, Mikelek lanpostua aurkitzen du bertako ospitalean. Anek gero eta okerrago pasatzen du Mikelekin egoteko desioa gero eta handiagoa delarik. Egun batean Anek eromen edo histeria eraso bat izaten du eta ondorioz Solentiname izeneko irla batzuetara joaten dira emakumea barrik ez sentitzeko xedeaz. Berriz ere arazo berdina suertatuta eta New Yorken aurkitu nahi zutenarekin topo egin ez zuten San Franciscora abiatzen dira. Bertan Mikel bere ikasketak jarraitzen ditu eta Ane berriz bakarrik aurkitzen hasten da. Bakardade hori saihesteko Anek maitale bat ezagutzen du, Roberto izenekoa. Berarekin dagoela abortu natural bat izaten du eta horregatik berriz ere hura ez ikustea erabakitzen du. Bere sentimenduak gero eta nahasiagoak hasten dira izaten eta azkenean Mikel ere utzita etxera bueltatzen da.

Esteban, psikoanalista, erabat txundituta dago Anek kontatutakoarekin eta bere lana hobeto betetzeko Aneren Karmele lagunaren laguntza jasotzen du momenturo, honekin ere maitemintzen delarik eta ateratzen hasten dira nahiz eta Esteban ezkondata egon. Terapiarekin iragan hurbila aztertuta dute baina profesionalek diotenez arazo baten muina iragan urrunean du sorburu. Horregatik arakatzen hainbat datu biltzen ditu Estebanek. Anek bere amak bezala ihesbideari ekiten dio arazoari soluzioa eman nahian, bizkarra emanaz. Eta hori ez da modua. Arazoari aurre egin beharra dago.

Kontatu dionarekin, Aneren iragana bere sentimenduen zergatia dela ohartu da Esteban, nola bere ahizpa Aneren eredu zena hilik agertu zen duela zenbait urte, nola bere amak ez zion jaramonik egiten, etab.

EGITURAKETA

Kontaketa ez da lineala, hau da, nobelak ez du denbora kronologikoa jarraitzen. Ane etxera bueltatzerakoan kokatuta dago, eta behin psikoanalistarenean, bere aspaldiko kontuak kontatzen ditu, denboran atzera eginez. Horrelako iraganarekiko joan etorriak maiz agertzen dira batez ere Ane eta Karmelek Estebani beraiei buruzkoak kontatzen dizkiotenean; beste pertsonaien gogoeten artean ere noski. Honela, denboran egindako salto hauen presentziak narrazioa ez-jarraitua bihurtzen du.

PERTSONAIAK

Ane: Liburuko pertsonaia nagusia da, protagonista. Honen inguruan beste istorioak azaltzen dira, bera da hari nagusia. Berrogei urte inguru dituen emakumea da, ezkondata dago eta bi alaba ditu. Bere iragana nahiko iluna da, bere ama ez zuen bera maite, dirudienez, Ane eta Amaia aita berdinekoak ez zirelako. Geroago, bere ahizparen irudia bihurtu zen, bera bezalakoa izaten saiatzen zen, baina eztabaida baten ostean, bere ahizpa hil zuen nahigabe. Ordutik erabat aldatu zen, egonkorragoa zen bizitza aukeratu zuen, formalizatu egin zen bere ahizpa imitatzean zenaren kontrara, guzti hau Mikel agertu zen arte.

Esteban: Aneren psikoanalista da, helduaroan dagoen gizon interesgarri eta elegantea da. Gehiago inporta zaio bere bezeroaren laguna bere bezeroa baino. Infideltasunari buruzko ikuspegi argia dauka, berarentzat gizakia ezin du emakume bakarrarekin bizitza osoan zehar iraun, ez da naturala. Hori dela eta, hainbat maitale izan ditu eta horrek bere emaztearekin zeukan harremana ia itzali arte eraman du.

Karmele: Aneren lagun mina da, Ane baino urte bat helduagoa eta Aneren ahizparen gelakidea izandakoa baina betidanik izan dira lagun. Amodioarekin izan dituen harremanak ez dira inoiz oso onak izan eta hasieran ez zuen Estebanekin ezer nahi. Oso lagun ona da, bere adiskidetasuna guztiaren gainetik dago, Karmelek bazekien Ane etxetik joango zela eta ez zuen ezer esan.

Amaia: Aneren ahizpa da, bera baino urte bat helduagoa zen, oso indartsua eta burugorria zen, sarritan ateratzen zen garaile eztabaidetan eta taldeko burua zen. Aneren eredu izan zen. Txute ezagutu zuenean drogetan sartu zen eta Anek, bera drogetan sarturik zegoela jakin zuenean, nahigabe hil egin zuen. Beranduago, Txutek eta beste lagun batzuk Amaia biluztu eta mendian utzi zuten biolentziako zeinurik gabe.

Mikel: Anek inoiz ezagutu duen gizonik erakargarriena da, eta beretaz maitemindu zen denbora epe txikian. Beretaz sentitu zuena ez du inoiz sentitu, bere buruan Mikel bakarrik zegoen. Oso gizon ona da, jendea laguntzen duena guztiaren gainetik, ez da batere berekoa. Ane asko maite du, baina jendea laguntzeko nahia Aneren gainetik dago.

BALIABIDEAK

Eleberri honetan narrazioa, elkarrizketa eta barne bakarriketa tartekatzen dira. Narrazioan eta barne bakarriketan maiz agertzen da deskribapena, gehienbat paisaiak nolakoak diren esateko. Barne bakarriketa bitxia da noizbehinka, Anek ozenki hitz egiten baitu baina berak dioenez, berarentzat hitz egiten zuelako.

Narratzaile nagusia orojakilea da eta honek dioena hizkera arruntean idatzirik agertzen da. Bere ezaugarriak honakoak dira: hirugarren pertsonan idazten du eta narrazten den ekintzatik kanpo agertzen da. Pertsonaien sentimenduak, hauen jokaeren zergatiak, gertaeren nondik norako guztiak... Dena, zehatz-mehatz ezagutzen du.

Beste narratzailea berriz, hitz egiten duen pertsonaia da. Hau hizkera kurtsiboan agertzen da idatzirik eta nobelan parte hartzen duten pertsonaien kontaktak dira. Normalean Ane eta Karmeleren gogoetak kontsultan daudenean. Hauek dira narratzaile aktorearen ezaugarriak: lehenengo pertsonan idazten du eta berak soilik dakiena konta dezake, ez du orojakilearen ahalmenak.

Formaren aldetik nahiko landua dago bai hiztegia eta bai egituraketa. Hiztegia ulergarria da eta denboran zehar dauden saltoak ez gaituzte istorioaren haritik kanporatzen, hau da, erraza da haria jarraitzea. Etengabeki iritziak, pentsamenduak, oroitzapenak... ere agertzen dira baina hala ere irakurketa erraza egiten da.

Tropo batzuk ere baditu baina inprentaren akats arruntak dira.

Hizkuntza funtzioetan denetarik ere badago baina nire ustez ugariena konparazioa eta metaforak dira. Hona hemen hiru funtzio ezberdin dagokion adibidearekin:

Pertsonifikazioa:

- "...maitasunak hil egin ninduen, baina berari esker bizi izan nintzen behin, hil aurretik." (10. or).

Metaforak:

- "...mundua bera eskura egon daitekeela zioen, eta hartu nahi zuen, bere egin, edan, kolpe batez irentsi." (106. or.).

Konparazioak:

- "...Amaiaren heriotzarekin bizimodua zeharo aldatu zitzaion Aneri. Bizitza bati bukaera eman izan balio bezala...(64. or.).

IRITZIA

“Bai, ba, gaztetan dena errazagoa da, ez duzu loturarik, ikasteko duzu dena eta, gainera, uste duzu edozer lor dezakezula. Gazteak ez du mugarik ezagutzen. Nagusitan, ordea, ezberdina da. Konturatzen zara den-dena lortzerik ez dagoela. Zerbait utzi behar dela bidean. Eta, gainera, askoz ere lotura gehiago izaten duzu, familia bat, bizitza eginda.” (20. or.).

Pasarte hau esanguratsua iruditu zait. Batez ere, nire familia-kide batek duen arazoa bergogorarazi egin didalako. Azken honek familia baztertu egin du berari gehien gustatzen zaiona egiteko eta hau seme bat duelarik. Horregatik komentatzeko aproposa iruditu zait.

Gaztetan, nire adinarekin, maitasun guztia oso polita, erraza...dirudi baina nagusitan bikotearen elkarbizitzak, lanbideak, harrerak...arazoak sortzen dituzte. Benetan zaila dirudi nire iritziz, bikote bat elkarrekin denbora asko irautea. Horrek dedikazioa, tolerantzia, lagunkortasuna...suposatzen baitu eta askotan gizakiok oso berekoiak bihurtzen gara. Eta beno, seme-alabarik edukiz gero, askoz ere gehiago. Beraz, familia bat eta lehenago harreman iraunkor bat sortzeko nahietan ibiliz gero, aurretik ondo hausnartzea eta erabaki egokia hartzea komeni dela ziur nago.

“-...gizon horrek hainbeste merezi al zuen?

- *Nola erantzun horri? Galdera ez da ea gizon batek merezi duen. Seguruena ez. Ziur asko bakar batek ere ez du gauza handirik merezi.*
- *Orduan? Zergatik Ane?*
- *Maitasunak merezi du. Halako erabakia ez da hartzen gizon batengatik, maitasunagatik baizik.*
- *Maitasuna nori? Zeri?*
- *Maitasuna maitatzeari berari.” (39. or).*

Elkarriketa hau berezia iruditu zait. Ez zait inoiz halakorik bururatu. Egia esan, sekula! Eta ez dakit ados edo kontran nagoen.

Alde batetik gezon batekin maitemintzen garenean ez dut uste bera espezifikoki hainbesterako desiratzen dugunik. Gainera harekin gaudenean txoraturik bizi gara, maitemindurik eta momentu horretan amets antzekoan gaude. Horregatik izan daiteke maitasunaz, beretaz maitemindurik egotea. Hau da, sentitzen dugunarekin maiteminduta, sentimendu goxo horrekin, gure fantasiarekin eta nahi dugun horrekin. Hala bada, esamolde honekin uler dezakegu diodana: “maitasuna itsu-itsua da”.

Beste aldetik, berriz, ez zait egokia iruditzen modu horretan mutila baztertzea. Maitasunaren zergatia bera baita, bera gustuko duzu, desiratzen duzu... bera da sentimenduaren arazoia azken finean. Era berean nolakoa den atsegin duzu eta horrek eragin handia izan du zure sentimenduen sorreran; bai fisikoki eta psikologikoki nolakoa den esan nahi dut.

“- Gizonak emakumeek bezala maite duela, edo bestela ez duela maite. Hau da, gizon batek bene-benetan maite duenean, emakumeek bezala maitatzen duela, eta osterantzean ez duela maite.

- *Eta berak hori pentsatzen zuen?*

- *Ez dakit. Baina hondo- hondoan, ez al da horrela? Begira Joni, uste dut zerbait femeninoa dagoela bere maitasunean, eta aitortzea gogorra egiten bazait ere, uste dut bene-benetan maite nauela.*” (41.or).

Pasarte honetan badaude atsegin ez ditudan iritziak. Bata da ez nagoela ados gizon-emakumeek era desberdinetan maitatzen dugunarekin. Nik uste dut bikote-harremanaren araberakoa dela eta biok seriozko harreman batean murgilduta badaude, seguruenik, biak asko elkar maite dutelako izango dela eta bestela zerbait txarto joan delako. Baina argi daukat gizon-emakumeek maitatzen dugunean berdin maite dugula bata bestearekiko. Eta ez Anek dioen bezala, femeninoki maite dutela gizonek batzutan eta emakumeek beti asko maite dugula. Azken ideia hau bentan, oso sexista iruditzen zait; baztertzaila.

“ ... baina harreman berrietan dagoen hasierako ilusio hori bai, nola esan, lehen flasha, lehen distira, tximista baino arinagoa den une erakargarri hori behar du bizitzeko, begirada berezi bat, inuzentzat jo nahi den ukitu ikasia. Bihotz-sastada izateko identifikagarria den keinua, une bat beharbada, begi-ninian tinko geratuko den koadroa.” (43. or.).

Asko gustatu zait pasarte hau, zinez. Gogorarazi egin baitzikit hasiera batean, maitalearekin izaten diren lehenengo topaldietan sufritzen diren lotsak. Orain barre egiten dut momentu horiek gogoratzean baina oso gaizki pasatzen da; egia. Isiltasun iraunkorrek, arnas sakonak...

“Mikelek esaten zion norberaren inplikazioa zela, eskatu inork ez ziola eskatzen, baina egoera ikusita...ez zuela beste irtenbiderik ikusten, pertsona haiei lagundu beharra zuela. Teknikoki bera zela prestatuena ebakuntza-gelan, eta hala ere formazio-falta somatzen zuela.” (49. or.)

Ni orain arte, txikitatik medikuntza ikasi nahi nuen baina hain ikasketa gogorra direla aurreikusita, uko egin diot ideiarri. Horregatik pasarte honetan Mikel benetan mirestu izan dut. Harro sentitu naiz berarekiko. Oso pertsonaia baketsua, ona, bere buruarekiko oso ziurra eta profesionala iruditu zait. Medikua izatea oso gogorra bada ospitale arrunt batean imajina ezazu Hego Amerikako herrialde horietan: tresnarik gabe, gaixotasun larriekin, gaixo kopuru izugarriekin, istripu eta gerrate garrantzitsuekin... Gizaki ausarta da Aneren Mikel.

“Zeloak asmakizun burgesa eta konbentzionala zirela esaten zion Mariani, eta konfiantza dagoenean zentzurik ez zutela, baijan gero ezin zion kontu bera sinetsarazi bere buruari, Marian beste norbaitekin besoetan, (edo pentsamenduan) ibil zitekeenik sumatzen zuenean, barnetik sortzen zitzaion amorruek gainez egiten baitzion.” (51. or.).

Nire ustetan, zeloak ez dira asmakizun bat. Guztiz kontrakoa, txikitatik jeloskorrek direnak izango dira nagusitan, zeloak hortaz, izaeraren ezaugarri bat dira. Horrek eragozpen bat suposatzen du harreman batetan; askotan emakumeak beste gizon batekin harreman ñimiñorik izan ezker, elkarrizketa bat esaterako, gizona salto egin eta babestera aterako delako.

“Helduen maitasunean elementu gehiegi dago. Egia esateko nagusitan maitemintzea dramatiko da, tragedia bat. Burugabe jokatzen du maiteminduak, baina bizitzak esperientzia nahikoa eman dio dagoeneko, eta badaki gauzak ez direla horrela.” (59. or.)

Maitasunak beti nahastu egiten gaitu. Gaztetan edo nerabetasun garaian honako hauxe ez zaigu axola, adin horrekin arduragabeak eta inozoak garelako. Horregatik zirrara jasatea onartzen eta atsegin dugu.

Nagusiak garenean berriz, maitasuna bizitzea gogorragoa da, norbera kontzientea baita gertatzen ari zaionaz eta askotan gaizki dagoena oso ondo desberdintzen dugu, gaztetan ez bezala arduratsuak baikara.

Guzti honekin ados nago. Hala ere, pentsatzen dut oso polita dela nagusi-nagusitan maitemintzea, honek gaztetu egiten baikaitu. Nire ustez, maitasuna beharrezkoa da bizitzan uneoro, osasuntsua dela deritzot, alaitzen gaituelako, lasaitu, konfiantza ematen digulako...

“Egituran ez nuen zorientasunik, aitortzen dut, baina urte batzuk geroago faltan hartzen nuen batzuetan egitura bat edukitzea. Egitura desiotik urrun dago, badakigu, baina habitagarria da, babeslea da...eraikitako egitura bat behar nuen, txarra bazen ere.” (59-60. orr.).

Pasarte honetan Anek komentatzen duena logikoa eta arrazionala dela uste dut. Egia esan niri inoiz gertatutako zerbait da, baina etorkizunean egitura bat lortzen ez badut seguruenik pentsatuko nukeena. Edozein gizabanakoren bizitzan beharrezkoa da ingurune beroa, giro lagunkorra...eta beste zenbait ezaugarri eta hauetariko bat faltan izan ez gero, bakartasunean murgilduko litzateke indibidua. Izan ere niretzat egiturarik hoberena familia izango litzateke baina ez nago Anerekin ados hau txarra izan arren behar zuela esaten duenean. Nire kasuan bizimodu onuragarria izan beharko nuke eta bestela hobe ezer ez izatea.

«Eta abandonatuak pentsatuko du, “utzi behar baninduen zertarako deitu eta areagotu hutsunea abandonuaren hitzez. Zertarako gehitu hitza hutsuneari, zertarako gehitu azalpenik iheserako aitzakia baino ez denari”. Telefonoak ez ditu hiztunak batzen, beraien arteko distantzia nabarmentzen baizik...» (126. or).

Benetan egi osoa da telefonoak hiztunak urruntzen dituela eta kasu hauetan are eta gehiago. Bikote harreman bat ezin da telefonoz apurtu, hau koldarren jokaera argia da. Biderik onena elkarrekin geratzea eta zintzoki pentsatzen duzuna aitortzea da. Era berean gustuko izan dut zatitxo hau, askotan emakumeek hitz egiten baitugu gai honetaz, esan nahi dut, mutilek harreman-apurketak zelan egiten dituzten.

“Ez lukeela asmatuko zenbat desamodio bortitz dagoen, zenbat gabezia sakon, nolako bakardadea oreka afektiborik ezean. Adiskidetasunak iraunez gero, bikoteak iraungo duela diotso, adiskidetasuna ezinbesteko baldintza baita zorientasunerako.” (159. or.).

Nik pentsatzen dudana da aurreko hau. Harremaneko bikotea azken finean, lagunik hoberena dela eta izango dela etorkizunari begira harekin jarraitu nahi bada. Horregatik adiskidetasun hau iraunkorra bada, nahiz eta tartean beste arazo batzuk izan, harremana ere aurrera ateratzeko aukera asko daude. Nik gutxienez, izugarritzko garrantzia ematen diot maitaleen arteko lagunkortasunari bikote-harreman batean.

“Maitasuna itsatsirik dago gizakiari, harria Sisifori itsatsi zioten bezala, kondenaz, zigorraz, eternoki.

Eta, hala ere, Sisifok ez du etsitzen, Jainkoek harria mendiaren gailurrera eramatea kondenatu bazuten ere, eta harria behin eta berriz jausiko bazaio ere, bideari behin eta berriz ekitean Sisifok ez du etsitzen.

Alferrikako lana den arren, lan absurdua eta eternoa den arren, Sisifo menditik jaitsi eta bere harriaren bila joaten da behin eta berriz, bere patuari fidel. Patua berea delako, eta harria etxe bihurtu duelako, aterpe, kide, babes.” (169. or.).

Izugarri polita iruditu zait maitasuna eta Sisifok bizkarraren gainean eramaten duen harriaren arteko konparazio hau. Honek animatu egiten gaitu, hau da, noizbait maitasunarekin zorte txarra izan ezker, honi uko ez egitea, berriz ere berri bat aurkitzeari ekitea baizik. Gizaki baten bizitza oso luzea ez den arren, maitasuna askotan izan dezakegu eta normala da aldi batetan edo, gauzak gaizki ateratzea, baina ezin dugu arlo honetan etsi, guztiz kontrakoa, Sisifok bezala aurre egin behar diogu: beste berri bat aurkitzen eta aurrekoaz ahazten.

Liburu honen gai nagusia, amodioa, Sisiforen mitoarekin parekatzen da, amodioa Sisifok daraman harria da, eta Sisifo, norbera da.

Liburuan zehar maitasuna ulertzeko hainbat komentario daude, nire ustez gogoetak dira, eta beraien bidez inguruko istorioa kontatzen digu. Inportanteenak, niretzat esanguratsuenak direnak, lehen aipatu ditut. Dena dela, amodioari gehiegizko erreferentziak egiten zaizkiola ere uste dut, azkenean pixka bat astuna gertatzen delarik. Lehen idatzi ditudan komentarioetan, Estebanen gogoetak azpimarratuko nituzke, gizonen pentsamendu orokorra azaltzen baitu, liburuari errealitate puntu bat ematen diolarik. Bestalde, nire ustez Karmele emakume erreprimituaren irudia da, sozietatearen biktima dela esango nuke, Estebanek aipatzen dituen erregela sozialen biktima.

Azkenik, globalki egiten den gogoetarekin guztiz ados nago, nire ustez guztiok behar dugu noizbehinka amodioaren harrian tupust egitea, berriro hasteko beldurrik gabe nahiz eta agian, tupust egingo dugula jakin.

Liburuaren egituraketari buruz, liburu interesgarria eta sentimentala dela esan behar dut, era berean nahiko erraza ulertzeko. Oso ondo desberdinduta dago pertsonaia bakoitzak noiz hitz egiten duen, dituen berezitasunak direla eta.

Laburbilduz, gogoeta liburu bat iruditu zait, tesi bat modukoa baina azpiko istorio batzuen bidez egindakoa.

BIBLIOGRAFIA

Sisifo maite minez, Laura Mintegi. Txalaparta.
Hiztegia 2000, Askoren artean.